



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abenduaren 23a

55. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2021eko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean “Opor-eskolarako laguntzak, desgaitasunak dituzten ikasleentzakoak” izeneko aurrekontu-partida beharren arabera handitu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia idatz dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzahitzarmen bat sina dezan, Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean AHTaren eraikuntza hobetzeko eta azkartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (5. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Legebiltzarreko organoen bilkuren eta Legebiltzarraren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitateari buruz 2018ko irailaren 10ean onetsitako arauetako hirugarrena aldatzea (6. or.).

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.**

### *KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2019ko abenduaren 18an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2021eko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.**

### *KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2019ko abenduaren 18an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2021eko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrekontu-partida bat sar dezan 2021eko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2021eko abuztua baino lehen Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu

dezan Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta organo eskudunen bidez, ozono troposferikoak eta gainontzeko kutsatzaile atmosferiko arruntenek eragindako kutsadura murrizteko. Plan hori taxutuko da Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontraturiko Nafarroako populazio osoaren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko txostenak Nafarroako Foru Komunitate osorako ezarritako irizpideei jarraikiz. Plana 2020ko abuzturako egonen da bukatuta”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean “Opor-eskolarako laguntzak, desgaitasunak dituzten ikasleentzakoak” izeneko aurrekontu-partida beharren arabera handitu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean “Opor-eskolarako laguntzak, desgaitasunak dituzten ikasleentzakoak” izeneko aurrekontu-partida beharren arabera handitu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean “Opor-eskolarako laguntzak, desgaitasunak dituzten ikasleentzakoak” izeneko aurrekontu-partida beharren arabera handitu dezan”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia idatz dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea gaurkotu dezan eta Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana ekarriko duen estrategia idatz dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 10/2011 Foru Legea egokitu, gaurkotu eta gara dezan, Nafarroako gazteen errealitate berrietara egokitzeko.

2. Gazteriari buruzko 2020tik 2024ra bitarteko estrategia taxutu dezan, Nafarroako gazteek egun dauzkaten beharrianak artikulatzeko.

3. Nafarroako Gazteriari buruzko III. Plana gara dezan. Planak zeharkakotasunez jasoko ditu Nafarroako gazteak zeharo garatzeko beharrezkoak diren neurriak.

4. Gazteekin lan egin dezan plan horiek taxutzeko; bereziki, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin.

5. Jarrai dezan toki entitateekin gazteriaren arloko lana sustatzen, gazteentzako informazio sarea, gazteguneen dotazioa eta tokian tokiko planen eta estrategien ezarpena kontsolidatze aldera”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutu dezan hogeita lau hilabeteko epean, egun diren programetatik abiatuta hobekuntzak jorratzeko honako alderdi hauetan: osasuna eta bizimodu osasungarrien sustapena, prebentzioa, detekzio

goiztiarra eta diagnostikoa, tratamendua eta arreta integral soziosanitario eta psikosoziala, bizi kalitatea, zainketa aringarriak eta laguntza bizi-tzaren amaieran, ikerketa, terapia eta farmako berriak sartzea, medikuntza pertsonalizatua eta haien ebaluazioa; hori guztia parte-hartze eta adostasunaren bidez, eragile profesional, osasun kontseilu eta gaixoen elkarte guztiekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Minbiziaren Estrategia berri bat eguneratu eta/edo onetsi dezan, doitasunezko medikuntzaren aurrerapen farmakologikoak eta teknikoak jasoko dituen, ebidentzia zientifikoak frogatzen duen neurrian”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea, Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean AHTaren eraikuntza hobetzeko eta azkartzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko abenduaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea, Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean AHTaren eraikuntza hobetzeko eta azkartzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Egin beharreko urratsak egin dituzan Sustapen Ministerioaren eta ADIFen bitartez Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko, helburu izan den AHTaren garapenean lankidetzan aritzea obrak azkartzeko, halako moduan non lehenbailehen kokatu ahal izan den baikara Interes Orokorreko Trenbide-sarean eta, horrenbestez, Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen Nafarroako tartean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabalera bide

bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabiliko dena.

2. Nafarroako hurbileko/aldieretako trenbide-sistema hobetzeko jarduketak egin dituzan, bai bide konbentzionala bai azpiegitura berriak erabiliz, trenaren erregio barneko distantzia ertaineko garraio bide gisa erabil dadin sustatzeko.

3. Espainiako Gobernuarekin batera lan egin dezan, Aragoiko autonomia erkidegoan izapidetze administratiboa eta obren lizitazioa azkartzeko, jarraitutasuna eman ahal izan dakien Nafarroan egiten ari diren AHTaren obrei.

4. Espainiako Gobernuarekin lankidetzan aritu dadin AHTaren komunikaziorik onenaren eta azkarrenaren proiektua idazteko eta betetzeko, gure erkidegoan euskal Y-arekin lotzeko.

5. Lehen tasuna eman diezaien Foru Komunitateko trenbide-komunikazioak –aldieretakoak nahiz abiadura handikoak– sustatzeko, hobetzeko eta azkartzeko jarduketak guztiei”.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sinatzea Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko.**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI EGINDU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko abenduaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sinatzea Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko”. Mozioa

Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu zuen eta eta 2019ko azaroaren 28ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Legebiltzarreko organoen bilkuren eta Legebiltzarraren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitateari buruz 2018ko irailaren 10ean onetsitako arauetako hirugarrena aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak foru lege proiektuen eta foru lege proposamenen batzordeko eztabaiden transkripzioak egiteko proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Legebiltzarreko organoen bilkuren eta Legebiltzarraren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitateari buruz 2018ko irailaren 10ean onetsitako arauetako hirugarrena aldatzea. Hona testu berria:

“Hirugarrena. Foru lege proiektuen eta foru lege proposamenen eztabaidari nahiz Gobernuaren kontrolari dagozkion batzorde arrunten bilkurak –haien gai-zerrendan Gobernuko kideen informazio-agerraldiak, galderak edo mozioak badaude– eta batzorde berezien eta publikoak diren ikerketa-batzordeen bilkurak, Bilkura Egunkariaren antzekoa den formatu batean transkribatu eta editatu beharko dira, eta Nafarroako Parlamentuko web-orrian eta intranetean argitaratuko dira”.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



